



GAUR IRITSIKO DIRA LEHEN ZARTAGIN HOTSAK

Anoetara, Irurara eta Zizurkilera gaur iritsiko dira kaldereroak; Tolosan berriz larunbatean izango da kalejira >7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-02-05

VIII. URTEA 1921. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Albizurreko haurrak eta Ibarako elizako abesbatzako kideak Agate Deuna bezpera ospatzen. I. GARCIA-I. TERRADILLOS

HAURREK ZEIN HELDUEK EUTSIDIOTE OHITURA ZAHARRARI

KULTURA Gaurko Agate Deunaren eguna dela eta eskualdeko herri askotan kalera abestera atera ziren atzokoan 5

Babes ugari jaso du AHT-ren aurkako manifestazioak

TOLOSA Biharko mobilizazioarekin hainbat sindikatu, alkate eta elkarteek egin dute bat 3

Inauteriak berrartzeko, Mozorroen festa

LIZARTZA Pasa den asteburuan hasi bazituzten ere, honakoan izango dira ekitaldi nagusiak 6

JOSUNE ZABALA MINTZOLA FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

«Ikastaroa euskarazko kirol esatariak behar zirelako sortu zen»

VILLABONA laz ere egin zuten tailerra eta izandako arrakasta dela eta 40 orduzuztu eta berriz ere antolatzea adostu dute 4



Tolosako inauterietarako
eskaintza berezia

angula kiloa 390€

arraindegia honen eskutik dator eskaintza:

ARTOLA arraindegia • Tel.: 943 674 406
Korreo 33 - TOLOSA

festa on guztioi!

Urteko lehen azoka berezia, zuhaitzena, bihar Triangulon

Gizartea » Goiz osoan hamabost mintegi egongo dira zuhaitza, zuhaixka eta landareekin, horietatik bi eskualdekoak.

ERREDAKZIOA

Larunbateroko ohiko azokari zuhaitzena gehituko zaio bihar. Urteko lehendabiziko azoka berezia izango da, eta Triangulo plaza zuhaitzez, landarez eta zuhaixkez beteta ikusiko dugu goiz osoan zehar.

Tolosan ugariak dira urtean zehar egiten diren azoka bereziak, baina astero egiten den merkatuak ere merezi du aipamena, tradizio handia baitu Zerkausan egiten den azokak. Produktu naturalak, garaiak eta baratzetik zuzenean ekarritakoak eskuratu daitezke, erosleen eta saltzaileen arteko harreman zuzenarekin.

Bada, bihar ere izango da Zerkausan ohiko azoka, eta horretaz gain, eskaintza handiago izango da, Triangulo plazan ere postuak egongo direlako. Hain zuzen ere, zuhaitzak, zuhaixkak eta bestelako landareak izango dira horietan nagusi, eta urteroko mintegiek ez dute hutsik egingo, «jendearen nahia asetzeko prest».

Guztira 15 mintegi

Eraguztietako produktuak ekarriko dituzten 15 mintegi izango dira Zuhaitz Egunean. Horiek fruta arbolak, baso landareak, fruitu txikien zuhaixkak (magurdiak, ahabiak, arakatzak...) edota landare usaingarriak jarriko dituzte euren mahaitan.

Udalak aipamen berezia egin die larunbatero Atadi kalean egon ohi diren mintegiei: Agirretxe mintegia (Donostia), Arakama mintegia (Zegama), Dorronsoro mintegia (Ataun), Garitaonandia



Kolorez beteko da bihar Triangulo plaza. ESTI EZEIZA

mintegia (Zaldibar), Lasa mintegia (Albiztur) eta Urkizu mintegia (Anoeta). Bihar ere parte hartuko dute, baina euren betiko lekua utziko dute, eta Triangulo plazan jarriko dira azoka berezian parte hartuz.

Biharko eguna landare eta zuhaitz mota ugari ikusi eta erosteko aproposa izateaz gain, haiei buruzko zehaztasunak galdetzeko ere egokia da. Izan ere, gustura erantzuten diete mintegietako arduradunek kezka eta galderei.

» DATUAK

Azoka berezia.

Zuhaitz Eguna. Bihar goiz osoan zehar, Triangulo plazan. Hamabost mintegi egongo dira landare, zuhaitza eta zuhaixkekin.

Parte-hartzaileak.

Eskualdekoak:

- Urkizu (Anoeta)
- Bittor Lasa (Albiztur)

Eskualdez kanpokoak:

- Abaro (Zaldibar)

- Agirretxe (Donostia)
- Arakama anaiak (Zegama)
- Aranburu (Aginaga)
- Areitio (Zaldibar)
- Belar (Zaldibar)
- Blasenea (Zarautz)
- Chavarri (Alfaro)
- Dorronsoro (Ataun)
- El Montañes (Tafalla)
- Guillen (Pueyo)
- Magalarte (Zamudio)
- Urretabizkaia (Arama)

Gaztetxoek Inauterietan sartzen lehenak

Inauteriak » Aiz-Orratz elkarteak antolatuta, bihar Inauterietako Haur Jaialdia izango da, Leidor aretoan, 16:30etik aurrera.

ERREDAKZIOA

Gertu dira Inauteriak, eta hauetan murgiltzen lehenak etxeko txikiak izango dira. Izan ere, Aiz-Orratz elkarteak antolatuta, Haur Jaialdia izango da bihar Leidorren, 16:30etik aurrera. Mozorroak izango dira bertan protagonista, baina horretaz gain, arratsalde polita igarotzeko beste hainbat osagai zeteriko jaialdia izango da.



Pasa den urteko jaialdiaren une bat. I.T.

Haur guztiak mozorrotuta joan ohi dira jaialdira, eta horietako batzuk epaimahairen aurretik pasatzera ere animatzen dira. Hori jaialdia hasi baino lehenago egingo dute, jubilatuen egoitzan 15:00etatik aurrera. Hala, jaialdian bertan, epaimahaiko kideek hartu duten erabakiaren berri ematen dute. Gehien gustatu zaizkien mozorroak sarituko dituzte, beraz, eta jasoko duten sarietako bat, Zaldunita Bezperako danborradako karrozan irteera izango da. Gaur izango da parte hartu ahal izateko izena emateko azken eguna, Aiz-Orratz elkartearen, 18:00etatik 20:00etara.

Joseba Usabiagak eta Maier Lopezek aurkeztuko duten jaial-

dian, mozorro lehiaketako sariak emateaz gain, marrazki lehiaketakoen berri ere emango dute. Tolosaldeko ikastetxe guztiak 2.400 gaztetxok parte hartu dute aurten, eta Inauteriak ardatz hartuta aurkeztu dute euren marrazkia.

Alberto Handia magoa eta Jonmagic ere jaialdian izango dira, hutsik egin gabe, gaztetxoak aho bete hortz utziz. Halaber, Mokolo zenuaren taldekideak ere bertan izango dira urteroko hitzordua galdu nahi izan ez dutelako, eta animatzaileak ere egongo dira festa borobiltzeko. Aipaturiko sariez gain, parte-hartzaile denen artean sari berezi bat zozketatuko dute, eta askaria ere banatuko dute.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Lan bila.** Gizonezko bat lan bila dabil: pertsona helduak zaintzen, baserriko lanak egiten edota beste edozertan lan egiteko prest dago bera. Interesa duenak deitu dezala telefono zenbaki honetara: 679 80 38 70.

■ **Emakumea.** Emakumezkoa behar da goizez eta arratsaldez etxeko lanak egin eta haurrak zaintze-

ko. Interesa dutenek deitu dezate: 615 76 74 34 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Katea.** Amezketako Zazpi-Itturi inguruan urrezko katea bilatu da duela egun batzuk. J. Z. inzialak idatziak zituen bertan. Aurkitu duenarekin harremanetan jarri nahi duenak ondorengo telefono

zenbakira deitu beharko du: 678 47 66 12.

ESKAINZTA

■ **Bigi garbitasunak.** Bigi garbitasunak, alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Telefono zenbakiak: 638 94 46 04 (Gurutze) eta 695 70 82 71 (Belen).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Talde eta udal askoren babesas jaso du AHT-ren aurkako manifestazioak

Azpiegiturak » AHT gelditu! Elkarlanak egin du deialdia; bihar 17:00etan hasiko da mobilizazio ekitaldia Triangulotik.

ERREDAKZIOA

AHT Gelditu! Elkarlanak deituta bihar manifestazioa egingo da. Ohi bezala, Kalderero eguna aitxakiazat hartuta aterako dira kalera. Triangulo plazatik abiatuko da martxa 17:00etan. Urtarrilaren 22an egin zuen mobilizaziorako deia Tolosaldeko mugimenduak eta ordutik hainbat atxikimendu jaso ditu. Besteak beste, LAB eta EHNE sindikatuak; Aduna, Anoeta, Alegia eta Hernialdeko alkateak; Ekologistak Martxanek; Tolosaldeko gazte mugimenduak; eta Tolosako Inpernu gaztetxeak eman dute euren babesas. Baita hainbat kultur taldeek ere, tartean Eneko Aritzak kultur elkarteak.

Aipatu bezala, Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak deialdiari atxikimendua eman dio. Beraien hitzetan, «euskal landa eta nekazal guneek, arrazozi fisiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak direla eta, ezin dute jarraitu jasaten Abiadura Handiko Trena bezalako egitura gehiagoren eraginik».

«Kilometro bakoitzeko 5-7 hektarea landa lur» gutxiago

Sindikatuak azaldutakoaren arabera, «lehenengo sektoreari dago-kionean, honelako txikizioek lehenik lurra erabiltzen galera eta ondorioz nekazaritzako lanpostuen galera ekarriko lukete. AHTren ibilbideko kilometro bakoitzeko 5-7 hektarea landa lur desagerraraziko litzuzke gutxienez».

Orain arteko informazioaren arabera, Euskal Herriko ibilbideak 440 kilometrotik gora edukiko litzuzke. Ondorioz, «honen gaineko suntsipena» ekarriko luke: 121 tunel eta 113 bide-zubi eraikitzea, 68 milioi m³-tik gora lur mugitzea, 2.500 hektarea baino gehiago zuzenean okupatzea eta 64 zabortegi sortzea. Bestalde, ohartarazten duten nekazari lurren gaineko presioa



Tolosaldeko AHT gelditu! Elkarlanak urtarrilaren 22an egin zuen mobilizaziorako deia, Triangulo plazan. E. EZBEJA

ere handituko lukeela, industrialde, errepide, eta abarren hedapena ekarri zuten baita.

Honenbestez, EHNEren uste-tan, «arlotu eta zentzu guztietan erabateko suntsipena dakar AHTk» eta nekazariak ezin dira beraien ogibideari «proiektu txikitzaile» honek egiten dion «erasoaren aurrean» geldi eta mutu egon.

«Obrak gero eta gertuago»

AHT gelditu! Elkarlanak «obrak gero eta gertuago daudelak» ikusita erabaki du mobilizazio deia egitea. Hala ere, beraien hitzetan gezurra da Eusko Jaurlaritzak duela gutxi esandakoa, hau da, «Tolosan obrak hasiak direla eta lehen harria jarria dela». Herri mugimenduak garbi utzi nahi du hori ez dela egia. Azaldutakoaren arabera, «oraindik besteak beste, lurra espropiatzeko daude». «Maniobra propagandistikotzat» jotzen dituzte Eusko Jaurlaritzak egindako baieztapenak, eta hauek etsipena besterik ez dutela bilatzen salatzen dute. Baina «engainuen gainetik» kontraktatua adierazteko aukera eman nahi du AHT Gelditu! Elkarlanak.

Salaketaz haratago, biharko manifestazioa lurjabe kaltetuei elkartasuna adierazteko bide izatea nahi dute herri mugimendukoek, eta adierazi «azken batean, kaltetuak guztiok garela». Izan ere, be-

raiek ohartarazten dute, «guztion diruarekin eraikiko da gutxi batzuk erabiliko duten obra faraoniko hau». Bestalde «eskualdeko trafikoa arazoei irtenbiderik ez die emango eta txikizio handiak sortuko ditu. Tunel asko daudenez, lur azpiko iturrietan eragin eta lehortuko baititu», gaineratu dute.

Eskualdeko datuak

Elkarlanak luzatutako datuen arabera, Tolosaldeari eragiten dion ibilbidea 19 kilometrotakoa izango da. «Aldabatik, Belkoain mendiraino (Aduna), tunel batek zeharkatua. 19 km horietatik 13 tunelak izango lirateke. Aipagarriak dira Aduna eta Andoaingo udalerritan Belkaingo tunela (4 kilometro), Anoeta eta Zizurkil artean, Beasaingo tunela (2,2 kilometro) Montezkue, Aldaba Txiki eta Hernialde zeharkatzen dituzten 1,5 ki-

» MANIFESTAZIOA

- **Eguna.** Bihar, otsailak 6.
- **Ordua.** 17:00.
- **Tokia.** Tolosako Triangulo plaza.
- **Leloa.** *Espropiazioen aurrean, lurjabeekin elkartasuna.*
- **Atxikimendua eman dutenak.** Aduna, Anoeta, Alegia eta Hernialdeko alkateak; LAB eta EHNE sindikatuak; Ekologistak Martxanek; Tolosaldeko gazte mugimenduak; Tolosako Inpernu gaztetxeak; eta Eneko Aritzak kultur taldeak.

lometroko tunelak, edota kilometro bat inguru luketen Langaurreko tunela (Alegi) eta Urkamendikoa (Zizurkil)», gaineratu du. Honenbestez, datu hauen arabera, Udalerri hauetan izango du eragina AHT-k: Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Asteasu, Zizurkil, Aduna eta Andoain.

ARAMAIOKO ALKATEARI BABESA

Aramaioko alkateari epaiketarik ez leloa duen mozioa onartu dute eskualdeko hainbat herritan, esaterako, Aduna, Alegia, Ikaztegieta eta Amezketako udalbatzek. Abiadura Handiko Trenaren inguruan Aramaion egindako herri galdeketagatik inabilitatu nahi dute alkatea, eta honen aurrean, beraien elkartasuna erakutsi diote hainbat Udalek.

Udal ordezkari hauek azaldutakoaren arabera, «herriaren hitzari bide ematearen akusaziopean bederatzirteko inabilitazio zigorrari aurre egin behar dio Aramaioko alkateak». Halaber, aipatutako prozedura judiziala «erabat bidegabea» dela uste dute. Honen aurrean, «akusazioa eta zigor eskaera erretiratzeara» eskatzen diote fiskaltzari, eta, bide bere-tik, «prozedura bera bertan behera uzteko epaiketari».

K Kirol jarduerak

Gaur, ostirala

Areto futbolak

- Usabalgo goiko kantxan Gipuzkoako 2. liga, 20:45ean: Laskorain-Tecnun.
- Usabalgo beheko kantxan Gipuzkoako 2. maila, 20:45ean: Laskorain-Plaza Berri.

Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantxan kadetak, 17:30ean: TAKE Yovar-BKL.

Bihar, larunbata

Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantxan, 09:00etan, infantil neska: Mende TAKE - Eskibel. Ondoren, infantil mutilak: Ipar TAKE-Zart Salvatore.
- Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, infantil mutilak: TAKE Oriar-Astigarraga. Ondoren, infantil neska: Eki TAKE-Decoramix. Gero, kadete mutilak: Aurrera-Cafes Aitona.
- Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, kadete mutilak: Tovar-Kraft Atco SN SN. Ondoren, infantil mutilak: EGO TAKE-Easo.
- Usabalgo goiko kantxan, 16:00etan, junior mutilak: TAKE Orbelar-Zarautz. Jarraian, junior neska: Aralar-MCM.
- Usabalgo beheko kantxan, 18:00etan, seniorrak: TAKE Orbelar-Easo Zahar.

Eskubaloia

- Usabalgo goiko kantxan, 18:00etan, seniorrak: Tolosa-Donibane.
- Usabalgo goiko kantxan, kadetak, 12:00etan: Tolosa-Legapi.
- Usabalgo beheko kantxan, 12:00etan, infantilak: Tolosa-Ereintza.
- Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan, jubenilak: Tolosa-Urola.

Mahai tenisa

- Usabalen, 16:00etatik aurrera, Usabal-Tolosa MT-CTT Borges.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, infantil futbol zortzita Anoeta - Hernani.
- Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, lurraldeko lehen mailakoak: Amaro - Kostkas.
- Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, senior emakumeak: Tolosa CF-Hernani.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

E Elkarrizketa

JOSUNE ZABALA › Mintzola Fundazioko Zuzendaria

«Zuzen zuzenean Mintzolaren egitasmoei lotutako ikastaroa da»

Villabona » Kirol eta aisialdi ekitaldietarako aurkezleentzako ikastaroa ematen ari dira Mintzola eraikinean. Bigarren urtez antolatatu dute euskaraz trebatzeko helburuarekin.

ENERITZ MAIZ

Urtarrilaren 23an hasi ziren kirol eta aisialdi ekitaldietarako aurkezleentzako ikastaroa eskaintzen Villabonako Mintzolan.

Josune Zabala (1978, Donostia) Mintzola Fundazioaren zuzendaria eman digu ikastaro berezi honen berri.

Nondik atera da ikastaro hau antolatzeko ideia edo beharra?

Behar baten iturritik sortu zen ikastaroa. Donostiako Euskara Patronatua, Kirola euskaraz eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bat egin zuten. Nolabait esateko, euskarazko kirol esatarien beharra zegoela ikusita, Donostiako Udala eta Foru Aldundia elkartu ziren. Aurkezpen ekitaldiak egiten zirenean eta erakundeek lotutakoak zirenean ere, lan hori egingo zukeen jende oso gutxi zegoen. Eskara handia zen, baina beti bat edo bi zeuden eta falta hori sumatzen zuten. Bestalde, horretan aritzen zirenek ere, trebatzeko beharra ikusten zuten. Eta ildo honetatik,



IMANOL GARCIA

iaz 20 orduko ikastaroa eman zen Donostian bertan.

Harrera ona izan zuen?

Arrakasta izan zuen eta berriz egiteko eskaerak egon ziren. Ebaluazioan ere beste praktika batzuk egitea eta beste gai batzuk jorratzea ere garrantzitsua izan zitekeela ikusi zen. Horren harira, harremanetan jarri ginen eta ikastaroan ahozko tasuna lantzen denez Mintzolan izan behar zuela ikusi zen.

Zer ikasi edo lantzen dute?

Arlo ezberdinak landuko dituzte eta lau irakasle, ildo ezberdinetan adituak direnak dira; Manu Marañón, Jon Alegria, Haizea Muñoz eta Julia Marin. Kirol, aisialdi eta aurkezle testuinguruan zentratzen da eta besteak beste, ahozko komunikazioa, edukien antolaketak, euskararen doinua, ahotsaren erabilera, estrategiak eta praktikak egingo dituzte.

Zein jende mota animatu da?

Gehiengo ikus-entzunezkoak ikasitakoa edo gaur egun ikasleak direnak dira. Kazetari eta irrati esatariak ere badaude eta euskara irakasleak ere bai. Batzuk beraien lanbideari begira eta besteek ahozko tasunari begira duten ardura horri erantzunez ari dira.

Dagoeneko bi saio egin dira. Zer moduz hasi da?

Ikasleen harrera oso ona izan da eta ikasleek ere saioak baloratu egiten dituzte eta orain artekoa positiboa izan da.

Zein betebeharrak du Mintzolak?

Mintzolatik, ikastaro hau aurrera eraman dadin edukiak lantzen laguntzen zaie. Bestetik, bertan beharrezkoak dituzten azpiegitura guztiak eskaintzen zaizkie. Erakundeen arteko elkarlan bat osatu da eta zuzen zuzenean, Mintzolan helburuei lotutako egitasmoa da, erabat bateragarria eta aberatsa da.

Aurrera begira beste alor batzuk lantzeko aukerarik izango da?

Behar bati erantzunez sortua izan da eta kasu honetan kirolari lotua. Baina Mintzola bertarako ere abiapuntu bat izan daiteke. Ahozkoari eta euskarari lotuta, beste ikastaro batzuk lantzeko lehenengo urratsa izango litzateke hau. Aurrera begira euskarazko ahozko tasuna bultzatu eta ikastaro mota ezberdinak egiteko.

Bigarren urtez jarraian kirol esatariak prestatzen

Villabona » 20 orduko ikastaroa 40 orduetara pasa dute. Ikastaro osatuagoa eta sakonagoa prestatu dute aurtengorako.

E. MAIZ

Iaz antolatutako ikastaro aitzindariak, harrera eta emaitzak onak izan zituen eta arlo honetan dauzen beharrak agerian geratu ziren. Hori dela eta, iazkoa baino ikastaro osatuagoa eta sakonagoa antolatu

dute. Aurtengo ikastaroa 40 orduko izango da eta ahozko kultur adierazpideen ikerkuntza eta berrikuntza landu eta zabaltzeko Villabonako Mintzola gunean eskainiko da.

Ikastaroa zortzi larunbatetan banaturik eskainiko da, urtarriletik maiatzera bitartean. Ikastaroan, batetik, alderdi teorikoak eta praktikak landuko dira eta, bestetik, euskal aurkezle ezagun baten esperientzia eta aholkuak jasotzeko aukera izango da. Kopuru murriztu da eta 16 ikasle daude.

Inauteri giroan sartuz maskara tailerra egingo dute larunbatean

Alkiza » Hamaiketako eta materiala hartuta, 10:00etatik aurrera Kultur Etxean elkartuko dira maskarak prestatzeko.

E. MAIZ

Larunbatean, Maskara tailerra egingo dute Alkizan. Tailer honen helburua, Inauteriak ate joka daukela kontuan izanik, mozorroak egitea izango da. 10:00etan Kultur Etxean elkartuko dira eta herritar guztiak zuzendua izango da. Haur, guraso eta helduek, guztiak izango dute inauterietarako mozorroa prestatzeko aukera.

Eraman beharrezko materiala

Mozorroak egin ahal izateko materiala norberak eramanez da; lotzeko sokak eta bridak, prezintua, ur margoak, kola... eta batik bat



Azaroan arte tailerra egin zuten. ASIER IMAZ

break, sokak... edota norberari bururatzeko zaiona, guztiak balio du. Bertan ere materiala egongo da; lotzeko sokak eta bridak, prezintua, ur margoak, kola... eta batik bat

umore ona izango dira bertan. Bestalde, mozorro eta Inauterietako argazkien proiektzioa eskainiko dute eta hamaiketako eramateko deia ere egingo dute.



Atxik jolas-joko-kirolari!, atxik herriari!

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako kirolariak lehen mugaria jarri dute Euskal Herria ofizialki ordezkatzeko ekimenean. 2009ko abenduaren 27an, Donostiako belodroman, bost mila euskal herritarrek baino gehiagok bat egin zuten halain.

Egin dezagun bat guztiok!



Erosi DVDa otsailaren 13an eta 14an

berria + = 8€



HARRIDEDUNTZAKO GHARRA:
Eskaria egiteko, nahikoa izango duzu
943-30 43 45 telefonaraino deitza.

AUKERA EZAZU.
BIZI EUSKARAZ
berria

Ohitura zaharrei eutsiz

Kultura » Agate Deuna bezperako tradizioari jarraipena eman zioten atzo hainbat herritan, bai eskolek eta baita herritarrek bultzatuta ere.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko hainbat herritan Agate Deuna edo Santa Ageda bezpera ospatu zuten atzo kantuan. Zena baitetan herritarrek eta bestetan eskoletako ikasle, irakasle eta gurasoek parte hartuz, etxez etxe eta baserri baserri ibili ziren ohikoak diren kantuak abesten.

Ikaztegiatan, esaterako, orain bederatzita urte hasi zen emakume talde bat otsailaren 4ean kantari eta oraindik ere gogotsu ekiten diote urtero abesteari. Aurtengogan, kantuetako zenbait bertso moldatu dituzte herria aipatuz. Besteak beste, Juanita Garmendia herritarri bertso bat eskaini zioten.

Betalde, bertsolarien laguntzaz

aritu ziren beste herri batzuetan santa eskean. Alegian, Txintxarri Abesbatzakoek eta kantura animatu ziren herritarrek bertso eskolakoak izan zituzten ondoan batean saioa borobilduz. Beste hainbeste Leitzan. Herri horretan Joanes Ilarregi bertsolari gaztearen jarduna izan zen aipatzekoa. Tolosan, Lizardi elkarteak, Pello Odriozola presoaren askatasuna eskatuz elkarretaratzea egin ondoren, koplak kantatzen aritu ziren bertsolari baten laguntzaz.

Aipatzekoa da eskualdeko hainbat eskoletan Agate Deuna bezperan abesteko tradizioari eusten diotela. Ohitura zaharrak jarraipena izango duen seinale.



Alegian, Larraitz auzoan, hasi zuten Agate Deunaren bezperako emanaldia. I. GARCIA



Leitzan hainbat herritar bildu zen santa eskean. I. GARCIA



Ikaztegiatan emakume talde bat biltzen da Agate Deunaren bezperan. E. MAIZ



Tolosako Udal Musika Eskolakoak udaletxe aurrera iristen. E. EZBIZA



Anoetako zenbait herritar, baserri baserri koplak abestera abiatu aurretik. I. GARCIA



Ezkerreko irudian, Tolosako Orixe Institutuko en saioaren une bat. Erdikoan, Tolosako Samaniego eskolako haurrak abesten. Eskuinekoan, Anoetako Ikastolako emanaldia. HITZA

Gogotsu berrekingo diete Inauteriei lizartzarrek

Lizartza » Gaur bertan mozorroen festa egingo dute herriko eskolan; asteburu osoan zehar barreiatuko da festa giroa.

ERREDAKZIOA

Festa gosez geratuko ziren ziuernenik pasa den asteburuan lizartzarrek. Larunbatean ekin zieten Inauteriei, baina gaur berrekingo diote festari. Herriko txikiak izango dira oraingo honetan protagonista nagusiak, herriko eskolan mozorroturik Inauterietako ohiko emanaldia eskainiko baitute. Eguraldiak laguntzen badu gainera kalejira irtingo dira ondoren.

Txistulariekin hasi, ijitoa errez amaitu

Eta bihar bai, bihar eztanda egingo du jaiak. «Aldaketa handirik» ez omen da behar Inauteri biribilak izateko, «gogoa eta eguraldiak laguntzea» baino ez dute eskatzen antolatzaileek. Lehena dudan jarzerik ez dago, eta bigarrena ez dagoenez inoren esku egitarauari gogoz eutsiko diote.

Txistulariek irekiko dute asteburuko festa kalejirarekin eta igandean gauetan amaituko dute ijitoa errez. Tartean, musika, gosariak, bazkariak, sagardo dastatzea, meza, dantzarien emanaldiak, txarangak, karaokea, zozketak... izango dira guztien gozagarri.



Pasa den asteburuan dantza emanaldia izan zen Inauterietan. I.TERRADILLOS

» EGITARAUA

Otsailak 5, gaur

■ 14:00etatik 15:00etara.

Herriko eskolak antolatuta, mozorro festa.

Jarraian. Kalejira egingo dute herriko zehar.

Otsailak 6, bihar

■ 07:00. Kalejira txistulariekin.

■ 09:30. Gosaria Etxe Zahar base-rian.

■ 12:00. Kalejira.

■ 14:00. Bazkaria egingo dute frontoian.

■ 18:00. Sagardo dastatzea, talo-gileak eta bertso poteoa.

Otsailak 7, etzi

■ 11:00. Meza nagusia.

■ 12:00. Hamaiketako plazan; bertan, dantzariak puska biltzen.

■ 13:00. Ihaute Dantzak herriko dantzarien eskutik.

■ 14:00. Bazkaria.

Jarraian. Txarangak, karaokea, jokoak, zozketak... izango dira. Gauean ijitoa erreko dute Inauterietan amaiera emateko.

Udal Txistularien eta Musika Bandaren eskutik, kontzertua

Tolosa » Berdura plazan izango da Inauterietako kontzertua, ohi bezala, etzi, 12:45etik aurrera; bi atal izango ditu.

ERREDAKZIOA

Gaur zuzen Inauterietan bete-be-tean murgilduta izango dira tolosarrak. Atzerakako kontaketa hasi da. Inauterietako lehen doinuak festa hauen iragarle diren kalerokekin helduko dira bihar; eta etzi, igandearekin, jarraipena izango dute, Tolosako Udal Txistulari Bandaren eta Tolosako Musika Bandaren eskutik. Hain zuzen, Berdura plazan Inauteri kontzertua eskainiko dute, 12:15etik aurrera. Bi atal izango ditu emanaldiak.

Lehenengo Iñaki Letamendiaren zuzendaritzapean egingo dute eta bigarrena, berriz, Luis Mari Gartziazen gidaritzapean. Bietan ere Inauterietako abestiak joko dituzte.

Tolosako Danborradari eta Juan Colmenerori omenaldia

Inauterietako egitaraua amaituta, Juan Colmenero egilearen Tolosako Danborrada abestiari omenaldia egingo diote. Era berezian egingo dute, txistulariekin eta bandarekin Tolosako bost danborrada talde elkartuko direlako omenaldia dute berezi honetan. Hala, abestiak bete dituen 50 urteak gogoratu nahi dituztela argitu dute. «1960an Colmeneroren lanari esker Tolosak bere danborrada du», nabaratu dute.

Soka-dantzaren azken entsegua egingo dute gaur Anoetako kiroldegian

ERREDAKZIOA

Biharko antolatuta dute anoetarrek Soka-dantza eguna. Azken entsegua, berriz, gaur bertan egingo dute 20:00etatik aurrera kiroldegian.

Soka-dantza egunerako egitarau oparoa prestatu dute. Goiz hasiko dira ekitaldiekin, 08:30ean egin dute hitzordua plazan, eta ordu erdi beranduago baserri-beranduago baserri-beranduago dira. Ondoren, herriko trikitilariak alaituta kalejira egingo dute.

12:00etan, nesken dantza izango da plazan. Bazkariak atsedenerako tartea emango du, 13:30ean Kuku elkartearen. 17:00etan, berriz, mutilen txanda izango da.

Egunari amaiera emateko Itzel taldearen eskutik erromeria izango da.

Laburrak

Gaurkorako aurreikusitako hitzaldia, bertan behera

BERASTEGI » Aldin Kiroleta Kultur Elkarteak hitzaldia aurreikusia zuten gaurkorako Gaztainondo elkartearen. Baina bertan behera geratu dela jakinarazi dute elkarte arduradunek. Hizlari lanetan Aitziber Gine Mujika psikologoak eta psikoterapeutak aritu behar zuten, hain zuzen, *Osasun emozionala nola sentitu* izenburupean. Aldin elkartetik ez dute zehaztu hitzaldia beste egun batean egingo ote duten.

Anjel Arrospide, Urrezko Mailako final-laurdenetan

LEABURU-TXARAMA » Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketaren jardunaldi berria jokatu dute biharkoan, Donezteben (Nafarroa) 19:00etatik aurrera egingo den jaialdian. Hain zuzen, final-laurdena izango da eta aurrez aurre Anjel Arrospide-Ander Erasun eta Floren Nazabal-Arkaitz Jauregi aizkolaria izango dira. Irabazleek otsailaren 14ko finalerdietarako txartela irabaziko dute. Azken hau Espejoren jokatu da.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipirita baserria - Soralde Zaharra www.rezolaagardotegia.com

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidai, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidai 57 www.akelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidai 63 (sarrera Ergoletak) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martene posalekua, 139

Mina Tel.: 943 555 220 Astigarraga
Txerrikietako posalekua

Gartziategi Tel.: 943 469 674 Astigarraga
Donevita Astigarraga bidai, 5 km. www.gartziategi.com

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 857 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñoruz auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Oñitza auzoa

Iparragirre Tel.: 943 550 328 Hernani
Oñitza auzoa, 10 www.iparragirre.com

Urdaira Tel.: 943 372 691 Agnaga-Urtebil
Urdaira baserria

Arratzain Tel.: 943 366 663 Urdail
Arratzain zahar baserria

Urbilarte Tel.: 943 580 119 Aizoa
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zorain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Bartzategi
Ibarra baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Adena
Goragartza baserria (Goberu auzoa) www.zabala.com info@zabala.com

Sarasola Tel.: 943 690 283 Auzoa
Bebalera auzoa

Ola Tel.: 943 623 130 Inua
Mezka auzoa, 102

Lindurrenborda Tel.: 948 637 212 Lesaka
Nabaz auzoa, 8

DIEZ Autobusak

Autobusak eta mikrobusak zerbitzu berria

Maketa eta zerbitzuak lantzen

Orreaga, Ibarra, Bartzategi, Bartzategi...

Mundua kalea, 24 | Tel.: 943 28 84 18 | Fax: 943 27 11 37 | 20102 DONOSTIA

Posta elektronikoa: malola@autocaresdiez.net



Aurten ere larunbatean 19:00etan elkartuko dira kaldereroak Tolosako Plaza Zaharrean. E. EZEIZA

» GAURKO EGITARAUAK

Ibarra

■ **18:00.** Hauspoa Kultur Elkarteak antolatutako Kalderero konpartsa San Bartolome plazatik irtengo da Pasaia txarangaren laguntzarekin. Guztiak joango dira ijitoz jantzita eta zartagina eskuan.

Irura

■ **18:00.** Kulturunetik abiatuko dira Irurako kaldereroak. Udakal herritar guztiak animatu nahi ditu parte hartzera eta baita mozorrozterera ere. Tolosako Bonberenea txarangarekin kalejira egin ondoren txistorrada izan da parte hartzaile guztientzat.

Anoeta

■ **18:00.** Kaldereroak herriko plazan elkartuko dira eta euria egiten badu, berriz, frontoian. Loatzoko bandak ere joko du.

Zizurkil

■ **15:15.** Pedro Mari Otaño ikastetxeko egingo dute herrian zehar. Ondoren merienda banatuko dute.

Aurrera-Saiaz elkarteko pilotariek 17 partida dituzte asteburuan

Pilota » Euskadiko Txapelketan eta Udaberri Txapelketan ari dira lehiatzen; etxean zortzi partida dituzte.

ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiaz pilota eskolakoek Euskadiko Txapelketako eta Udaberri Txapelketako partidak dituzte asteburu honetan. Euskadikoan 11 partida dituzte eta horietatik sei Tolosako Beotibar frontoian jokatu dituzte. Gaur, 20:30ean hasita, bi partida izango dira jokoa. Lehenengoan Kadete mailako Imanol Maiza eta Ion Elustondo ariko dira Amurrioko taldearen aurka. Bigarrenengoan, nagusien ohorezko mailan Ugaitz Renobales eta Xabier Telletxea ariko dira Amurrioko aurka.

Euskadikoan, bihar beste lau partida jokatu dituzte Beotibarren Aurrera-Saiazekoek. 11:00etan hasita, bi izango dira norgehiagokak. Lehenengoan, Eneko Labaka kadetea Aurrerako pilotariaren aurka ariko da. Beste partidari 22 urte azpiko Oier Apeztexea eta Aitor Biain ariko dira. Beste bi partidak 18:00etan hasiko den jaialdian izango dira. 22 urte azpiko mailan Ion Urbietak jokatu du Markinako elkartearen aurka lehenengo partidari. Bigarrenengoan, jubenil mailako Xabi Urbietak eta Txomin Zinkunegi Zaramagakoen aurka lehiatuko dira.

Udaberri Txapelketan asteburuan sei partida izango dituzte Aurrera-Saiazekoek. Horietatik Bidaniako frontoian bi partida jokatu dira, biak ala biak gaur 19:30ean hasiko den jaialdian. Lehenengo partidari bigarren mailako kadeteek jokatu dute Antiguako elkartearen aurka eta bigarrenengoan jubenilen lehen mailako ariko dira Tartaloetxe elkarteko pilotariaren aurka.

arena, aldiz, Juan Miguel Aranzabalek. Hauekin batera, eta zartagin hotsak lagunduz, Koldo Tarragonaren Akordeoi orkestrakoak ibiliko dira, eta baita biolin doinuak ere Jose Ramon Usonen zuzendaritzapean.

Karroza ere ibiliko da kalejiran, bertan, Eugenio Azkolain izango da igarlea eta Eleuterio Sanchez, Miguel Navarro eta Fermin Asensio erregina eta damak izango dira. Urtero bezala ogia eta txistorra ere banatuko dute eta horren ardura Emilio Rodriguezek eta Angel Ocamposek izango dute.

Urdiria-Txiki Elkartearen urteroko hitzordua

Urdiria-Txiki Elkarteak antolatzen du urtero Tolosako Kaldereroen konpartsa.

1974. urteko otsailaren 2an egin zuten lehen aldiz eta 36 urte pasa badira ere beti bezain gogotsu ekin diote aurtengoan ere konpartsa antolatzeari.

Gaurtik aurrera ijitoek iragarriko dituzte Inauteriak

Kaldereroak » Tolosan bihar iluntzean iritsiko dira ijitoak; eskualdeko beste herri askotan berriz, gaur bertan ere aterako dira.

ERREDAKZIOA

Bihar iritsiko dira ijitoak Tolosara ostegunean hasiko diren Inauteriak iragartzeko, baina eskualdeko beste herri batzuetan gaur bertan izango dira kaldereroen zartagin hotsak nagusi.

Ibarren esate baterako gaur 18:00etan elkartuko dira herriko plazan eta orduan irtengo dira ka-

lejiran herrian zehar. Anoetan eta Iruran ere gaur hartuko dute kaldereroek kalea. Anoetan 18:00etan plazatik irtengo dira eta Iruran ere ordu berean aterako dira kulturunetik. Zizurkilaren eta Pedro Maria Otaño ikastetxeko haurrak kalejiran aterako dira 15:15ean.

Tolosan bihar 19:00etatik aurrera

Kaldereroen Tolosako konpartsa, dena den, bihar aterako da.

Lehenik eta behin 19:00etan elkartuko dira Plaza Zaharrean eta hantxe, Udaletxean, irakurriko dute pregoia.

19:15ean aterako da konpartsa kalejiran eta honako ibilbidea egingo dute: Solana kaletik, Korreora eta Gorritira joango dira, eta handik Kale Nagusitik barrena, berriz ere Plaza Zaharrera bueltatuko dira.

Kaldereroen konpartsa, urtero bezala, ijito taldeak, hartzak eta bere hezitzaileak, erreginareen karrozak eta zuzendariak osatuko dute. Horiez gain, Joxan Arostegik zuzendutako Musika Banda eta abesbatza taldea ere eurekin batera ibiliko dira eta baita txaranga bat ere.

Hartzaren papera Jose Ramon Belverrek beteko du eta hezitzaile-

tolosaldeko.hitza.iragarkilaburrak.com

Asteburu asteburuko 7500ak arte jostatu iragarriak soilik argitaratuko dira.
IRAGARRIAK, JARTZEKO: www.tolosaldedehitza.iragarkilaburrak.com / 943-16 20 48 telefono zenbakia

INFORMATIKA/BIBLIOTEKARIAK

330034

Nirrendo erosi. Diganen eskola NINTENDO DS erosi nahi. Interesa dutenak deitu eta 626-73 40 77 telefono zenbakia.

LAN TXARAK

OSTALARITZA

Tolosa. Nerabe eskolako kaldereroen eta inauterietan Tolosako ta-

berrietan lan egiteko prest. Haremaierako deitu 659-96 1962 telefono zenbakia.

PERTSONAK ZABTU

Ameriketa. Gizon biko lana dabil pertsona lehiak zaindu, beneriko lana egin edota lanare eduzin lan egiteko prest dago. Interesa duenak deitu 679-80 58 70 telefono zenbakia.

IRAKASKUNTZA

Lasarte-Oria. Photo-

top programaren eskola partikularen ematen ditut. Arguzki-tratamendu eta sirtu digitala lantzen ditut. Espertizia duena nazio informatika eta diseinu eskola ematen. Haremaierako telefono zenbakia: 626-73 40 79.

GAMERAKOAK

Lasarte-Oria. Misajista profesionala naiz. Diferentzia beste teknika batzuk lantzen ditut, gorputzaren motarekin hartuta. Elkarrekin mi-

nik, artikulazio arazoak, tentzio muskularrak... aztertzen ditut. Ez kezkatu langabezia hazi edo deitu arazok biltzazu. Informazio gehiagorako deitu 617-58 40 95 telefono zenbakia.

Ikolan iragarkia
ALDIBATEKO LANA
943-16 20 48
Bereziki 7 garatu iragarkia iragarkia
Bereziki 7 garatu iragarkia iragarkia

salitzeko, erosteko, alokatzeko, bilatzeko, oparitzeko

tolosaldeko.hitza.iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarkilaburren ataria

Interneten iragarkia gurek duak

Paperean iragarkia ez duen baina iragarkia gurek duak iragarkia gurek duak iragarkia gurek duak

Iragarkien prezioak:
Aste bati 10€ / bi aste 15€ / hiru aste 20€ / bihil aste 25€



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** Gorringo antzerki taldearen *Xabinaitor* antzezlan eskainiko du gaur Leidor aretoan 20:30ean.

Musika

■ **Anoeta.** Mikel Urdangarinen kontzertua gaur Gaztetxean 22:30ean.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Inauteriari buruzko Juan Bautista Aranzaberen hitzaldia gaur Txinparta elkartearen 20:00etan.

Odol ateratzea

■ **Tolosa.** Odol ateraldia egingo dute gaur, 10:00etatik 12:00etara, Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuan.

Deialdia

■ **Villabona.** Biltoki jubilatuz elkarrearen urteko batzarra gaur Txermin Biltokian 17:30ean.
■ **Tolosa.** Berazubiko igerilekuko abonatuaren bilera gaur Kultur Etxean 20:00etan, igerilekuaren etorkizunaz hitz egiteko.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Miren Gonzalez artista tolosarraren *Fiordean trukean* erakusketa GKO Urban Art Galleryn gaurtik martxoaren 19a bitarte. Koadroak beste gauza edo lan batzuegatik trukatzuz eros daitezke. Inaugurazioa gaur bertan izango da 20:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943-67 32 74.
■ **Lekunberri.** Mendia M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Olerkiekin eta izenekin jolasean

TOLOSA • Mirian Mendoza ipuin kontalaria atzo Tolosako Errota haur liburategian izan zen. Bertan aho zabalik eta arreta handiz entzun zituzten etxeko txikienek Mendozak kontatutako istorioak. Ipuinak ez ezik, olerkiak ere irakurri zizkien. Izenekin jolasean aritu zen eta haurrek gustura

jarraitu zioten berak esandakoa txukun-txukun errepikatuz. Hilabetero izaten da horrelako ekimen bat Errotan. Hala, ipuin txokoan, haurrek ipuinak entzuten ikasteaz gain, gurasoek kontatzen ere ikasi dezakete, ondoren etxean gauza bera egiteko. **ESTIETZEA**

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behe • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>